

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Zer nolako proiektua egitea gustatuko litzaigukeen pentsatzen ibili eta gero hirugarren adineko pertsonentzat egokituta dagoen eguneko zentru bat egitea, ideia aparta zela pentsatu genuen "Salsiresi" izenekoa. Baina zer eskainiko diegu beste zentru batzuek ez dutena?

**Prezioen lehiakortasuna:** Merkatuko eguneko zentro gehienak 550-900 € hilabeteko preziotan dabilta, horregatik, gure eskaintza 500€ hilabeteko izatea erabaki dugu. Prezio horren barruan gosaria, bazkaria, askaria eta afaria sartuta egongo litzateke.

**Ordutegi zabala:** Lokalaren ordutegia goizeko 9-etatik gaueko 9-etararte izango da.

**Ekintza anitzeko zerbitzua:** Zentroan bertan eskainiko diegun ekintzak (ospakizunak egitea, dantza lehiaketa, mahai jolasak, sukaldaritza lehiaketa, kirola mantentze ekintzak... ) nahiz, kanpo ekintzak (Museok bisitatu, inguruko nahiz kanpoko herrietara txangoak...).

**Elkarbizitza:** 3.adineko pertsona asko bakarrik bizi dira edota haien familiako kideak lanaren ondorioz berandu etortzen dira etxera, beraz, asko eta asko bakarrik sentitzen dira. Hori ekidi nahi dugu eta pertsona hauen bizi kalitatea hobetzen saiatu.

